BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

762

AGINDUA, 2011ko abenduaren 30ekoa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, honako helburu hauek dituena: 1) Baskonia Fundazioaren (fundazio xurgatzailea) eta Deportivo Alavés Fundazioaren (fundazio xurgatua) xurgapen bidezko bat-egitea onetsi eta inskribatzea; 2) fundazio xurgatzailearen estatutuetan izena dela-eta (aurrerantzean, Fundación 5 + 11 Fundazioa) egindako aldaketa onetsi eta inskribatzea; eta estatutuak bateratzea; eta 3) fundazio xurgatzailearen patronatuan egindako aldaketak inskribatzea.

Idazpuruko espedientea ikusita eta azterturik, eta ondoko egitateetan oinarriturik:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2011ko abenduaren 15ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistroan inskribatzeko eskari bat sartu zen Justizia eta Herri Administrazio Sailean. Eskari horretan, xurgapen bidezko bat-egite erabaki bat, estatutu batzuen aldaketa eta fundazio xurgatzailearen patronatuko kideen aldaketa zihoazen. José Seoane Osa patronatuko idazkariak sinatzen zuen. Eskariari honako hauek eransten zaizkio:

Gasteizko notario Manuel María Rueda Díaz de Rábago jaunak 2011ko abenduaren 13an emandako eskrituraren bi kopia baimendu (protokolo-zenbakia: 2761).

Bigarrena.– Eskritura publiko horretan honako agiri hauek erantsi dira:

Bi fundazioen patronatuek egindako bilkuren akten ziurtagiriak; onetsitako bat-egitearen proiektua; bat-egite balantzeak; fundazio xurgatzailearen estatutuetan egindako aldaketak, izenaren aldaketa eta estatutuen bat-egitea; eta izendatutako patronatuko kideen onarpena.

Hirugarrena.– Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzako Zerbitzu Teknikoek espedientea aztertu eta ebazpen hau prestatu dute:

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak eman behar du, agindu bidez, bat-egite espediente honi buruzko ebazpena, fundazio xurgatzailearen estatutuen aldaketa eta, ondorioz, bere patronatuaren aldaketa dakarrena, honako lege-xedapen hauetan hala ezarrita baitago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari buruzko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikulua; Lehendakariak 2009ko maiatzaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen 4/2009 Dekretuaren 9.1.e) artikulua; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeari buruzko abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4.1 artikulua.

Bigarrena.– Funtsezko iritzi diren datuak eta agiriak erantsi zaizkio espediente honi, eta, hartara, bereziki bat-egite hitzartua dela-eta bete dira artikulu hauetan ezarritako eskakizunak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioaren ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 32. artikuluan ezarritakoak; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 34. artikuluan ezarritakoak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 45. artikuluan ezarritakoak.

Hirugarrena.– Fundazio xurgatzaileak erabakitako estatutu-aldaketa dela-eta bete dira orobat artikulu hauetan aurreikusitakoa: Autonomia Erkidegoko Fundazioaren ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan aurreikusitakoa; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 33. artikuluan aurreikusitakoa; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduaren 44. artikuluan aurreikusitakoa (erregelamendu hori ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren bidez onartu zen). Estatutu-aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

Laugarrena.– Fundazio xurgatzaileak erabakitako patronatu-aldaketa dela-eta, honako lege-xedapen hauek bete dira: Autonomia Erkidegoko Fundazioaren ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 10. artikulua eta berarekin bat datozenak; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 40. artikulua eta berarekin bat datozenak; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretua eta kasu honetan aplika daitezkeen gainerako arauak; fundazioaren estatutuetako arau aldatuak, aplikagarriak direnak.

Aipatu artikuluak eta aplikagarriak diren gainerakoak ikusita,

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Baskonia Fundazioaren (fundazio xurgatzailea) eta Deportivo Alavés Fundazioaren arteko xurgapen bidezko bat-egitea onartzea.

Bigarrena.– Baskonia Fundazioaren (fundazio xurgatzailea) eta Deportivo Alavés Fundazioaren arteko xurgapen bidezko bat-egitearen eskritura inskribatzeko agintzea, agindu honen datarekin, Gasteizko notario Manuel María Rueda Díaz de Rábago jaunaren 2011ko abenduaren 13ko eskriturarekin (protokolo-zenbakia: 2761) bat etorriz.

Hirugarrena.– Baskonia Fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa onartzea, bai eta izen-aldaketa (aurrerantzean, Fundación 5 + 11 Fundazioa izango da) eta beren estatutuak bateratzea ere.

Laugarrena.– Fundación 5 + 11 Fundazioaren patronatu berria inskribatzeko agintzea. Honela egongo da osaturik:

Kargua	Patronatuko kidea	Indarraldia
Lehendakaria	José Antonio Querejeta Altuna jauna	2016-12-13
Patronatuko kidea ez den idazkaria	Juan José Seoane Osa jauna	Mugagabea
Bokala	Avelino Fernández de Quincoces Mendieta jauna	2016-12-13
Bokala	Gorka Knorr Borras jauna	2016-12-13
Bokala	Alfredo Martínez Martínez de Ilarduya jauna	2016-12-13
Bokala	Luís María Querejeta jauna	2016-12-13
Bokala	Roberto Larrañaga Oyanguren jauna	2016-12-13
Bokala	Santiago Martínez de Arenaza Ibaibarriaga jauna	2016-12-13
Bokala	Fernando Ortiz de Zárate Higueras jauna	2016-12-13
Bokala	Francisco Javier Ortiz de Zárate Quintana jauna	2016-12-13
Bokala	Rafael Pedreira Iñiguez de Heredia jauna	2016-12-13
Bokala	Alfonso José Fernández de Trocóniz Núñez jauna	2016-12-13

Bosgarrena.– Deportivo Alaves fundazioaren erregistro-idazpenak ezereztea.

Seigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei jakinaraztea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 30a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.